Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea — NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA / CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

# ERANSKINA

## DEIALDIA
## 2017ko UDAKO IKASTAROAK
## (uztaila/ abuztua/ iraila)

IVAPek egindako udako ikastaroen deialdia zabaltzen da.

**1.- Parte har dezaketenak**
AZPko guztiak.

**2.- Udako ikastaroek bete beharreko baldintzak**

- Ikastaroak **HABEk homologatuak** izan behar dira.
- **Euskaltegi publikoek edo pribatu homologatuek** eman behar dituzte.
- **Gutxienez 80 ordukoak** izan behar dute.
- Auto-ikaskuntza bidezko ikastaroak **ez dira onartuko**.
- Ikastaroa egin ahal izateko eskatzaileak **ikas-prozesua hasita** izan behar du.
- **Ez da 4. Hizkuntza-eskakizuna** prestatzeko ikastarorik onartuko.

**3.- Ikastaroen helburuak**
Ikasleek ikasturtean zehar egindakoa finkatu eta sendotzeko helburuz eskaintzen ditu IVAPek udako ikastaroak, eta, datorren ikasturtera begira (2017/2018), ez da kontuan hartuko udako ikastaroan langileak egin duen urratsa, baizik eta 2016/2017 ikasturte honetan gainditu duen azken urratsa edo aurrekoak.

**4.- Eskaerak**
Eskaerak Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzara bidaliko dira erregistro orokorretik, honekin batera doan inprimakia betez. Nagusiaren oniritzia behar da ikastaroa lanorduetan egingo bada. Baimenik ez badauka langileak, nagusiek txosten arrazoitua bidali beharko dute erreklamazio epean (maiatzaren 29 eta 30ean) Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko

# ANEXO

## CONVOCATORIA
## CURSOS DE VERANO de 2017
## (julio/agosto/septiembre)

Se hace extensiva la convocatoria de cursos de verano realizada por el IVAP.

**1.- Participantes**
Todo el personal del PAS.

**2.- Condiciones de los cursos de verano**

- Han de ser cursos **homologados por HABE**
- Los han de impartir **euskaltegis públicos o privados homologados**.
- Han de tener una **duración mínima de 80 horas**.
- **No** se aceptarán matrículas para cursos de **autoaprendizaje**.
- Para poder realizar un curso el/la solicitante debe **tener abierto el proceso de aprendizaje.**
- **No se aceptaran** solicitudes para cursos de preparación del **perfil lingüístico 4.**

**3.- Objetivos de estos cursos**
El IVAP ofrece los cursos de verano con el objetivo de perfeccionar y afianzar lo aprendido durante el curso. De cara al nuevo curso 2017/2018 no se tendrá en cuenta el nivel realizado en verano, sino el último nivel conseguido durante el presente curso 2016/2017 o anteriores.

**4.- Solicitudes**
Las solicitudes se enviarán al Vicerrectorado de Euskera Y Formación Continua por el registro general, rellenando el impreso que se adjunta para ello. Se necesita autorización del superior/a en el caso de querer realizar el curso en horario laboral. Si no se concede tal permiso, los/as superiores/as deberán enviar al Vicerrectorado de Euskera Y Formación Continua, informe justificativo de la negativa

Errektoreordetzara, eta postaz aurreratu arrate.atxa@ehu.eus helbide elektronikora.

en el periodo de reclamaciones, que será los días 29 y 30 de mayo, adelantándolo al siguiente correo electrónico: arrate.atxa@ehu.eus.

Ikastaro trinkoa langilearen oporraldian egiteko izan ezkero, ez da nagusiaren baimenik behar.

Si la solicitud es para realizar el intensivo durante las vacaciones de la persona interesada, no se necesita dicha autorización.

**Gehienez** pertsona bakoitzak **hiru uda-ikastaro** eskatu ahal izango ditu.

Como **máximo** cada persona podrá solicitar **tres cursos** de verano.

Eskaerak aurkezteko epea: **maiatzaren 8tik 17ra** bitartean (biak barne). Eskariak egiteko azken eguna helduta ez baduzu nagusiaren baimenik lortu, erreklamazioak egiteko epean aurkeztu ahal izango dituzu baimen horiek. Baina eskaria bera, sinadura gabe, epe barruan bidali beharko duzu.

Plazo para presentar solicitudes**: del 8 al 17 de mayo** (ambos inclusive)**.** Cuando para la fecha señalada como límite de plazo aún no se disponga de la autorización del/de la superior/a, se podrá subsanar esta carencia durante el periodo de reclamaciones, pero la solicitud deberá remitirse sin la firma dentro del plazo establecido.

Behin-behineko zerrendak: **maiatzaren 26**an argitaratuko dira ohiko tabloietan eta errektoreordetzako webgunean.

Los listados provisionales se publicarán **el 26 de mayo,** en los tablones habituales y en la web del vicerrectorado.

**Erreklamazioak** egiteko epea: **maiatzak 29 eta 30**. Hori berori izango da nagusien txostenak aurkezteko epea ere, dagokien kasuetan (baimena ematen ez dutenean).

Las **reclamaciones** se podrán presentar los días **29 y 30 de mayo**. En ese mismo plazo los/las superiores/as presentarán, en caso necesario (cuando no concedan la autorización), el informe justificativo correspondiente.

**Ekainaren 8tik aurrera behin betiko zerrendak** argitaratuko dira (euskalduntze batzordea bildu ostean) eta IVAPera bidaliko dira.

**A partir del 8 de junio,** una vez reunida la comisión de euskaldunización, se publicarán y remitirán al IVAP los **listados definitivos.**

**5.- Udako ikastaroen antolamendua**
Baldintzak betetzen ez dituzten eskaeren kasuan, IVAPek ukatu egingo ditu eta unibertsitateari jakinaraziko dio, honek interesatuari horren berri emateko, arrazoiak zehaztuz.

**5.- Organización de los cursos de verano**
En el caso de las solicitudes que no cumplen las condiciones, el IVAP informará de esas denegaciones a la universidad, quien lo comunicará a las personas interesadas, detallando los motivos.

Baldintzak betetzen dituzten eskaeren kasuan, IVAPek langileentzako **matrikula orri pertsonalizatuak** bidaliko ditu Unibertsitatera (ekainaren bukaeran). Interesatuak eurak

En el caso de las solicitudes que cumplen las condiciones, el IVAP enviará a la Universidad las **hojas de matrícula personalizadas** para las personas interesadas (a finales de junio),

matrikulatuko dira aukeratzen duten ikastaroan; horretarako, matrikula orria aurkeztu beharko dute euskaltegian.

para que con ella los propios interesados formalicen la matrícula en el centro elegido.

**Langilea inon matrikulatzen ez bada**, ahalik eta lasterren itzuli beharko du matrikula orria Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzara.

Aquellos/as trabajadores/as **que no se matriculen en ningún curso** deberán devolver la hoja de matrícula, cuanto antes, al Vicerrectorado de Euskera y Formación Continua.

Matrikula orria itzultzea ezinezkoa gertatuz gero, galdu edo apurtu delako, langileak, Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzan idatziz jakinarazi beharko du ez dela inon matrikulatu.

Si no fuera posible la devolución de la hoja de matrícula, porque se hubiera roto o perdido, el/la trabajador/a ha de comunicar por escrito en el Vicerrectorado de Euskera y Formación Continua que no ha realizado la matrícula.

**6.- Euskaltegien eskaintza:**

Euskaltegi bakoitzak bere eskaintza berezitua egiten du: egutegiak, iraupena, ikasgelak, etab. Tokiari dagokionez, ikastaro batzuk euskaltegietan ematen dira eta beste batzuk, aldiz, bestelako etxe edo herrietan. Horregatik langileak eskaera Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzan aurkeztu aurretik, euskaltegi/barnetegira deitu beharko du aukeratutako ikastaroaren datak egiaztatu eta ziurtatzeko. **Oraindik HABEk eta AEKak egiten duen eskaintza argitaratu edo zehaztu gabe badago, gutxi-gorabeherakoa jarri beharko du eskatzaileak eskari-orrian, gero aldaketa txikiren bat egon arren.**

**6.- Oferta de euskaltegis:**

Cada euskaltegi tiene una oferta específica de cursos, por lo que el calendario, la duración, las aulas, etc. de los cursos pueden variar de un euskaltegi a otro. Algunos cursos se imparten en el mismo euskaltegi; pero, en otros casos, en sedes o pueblos distintos. Por ello, el/la trabajador/a, antes de presentar la solicitud al vicerrectorado de Euskera y Formación Continua, deberá llamar al euskaltegi/barnetegi para asegurarse de las fechas previstas para los cursos. **Si la oferta que realizan HABE y AEK aún no se ha publicado para estas fechas, el/la solicitante deberá especificar más o menos, aunque luego haya alguna pequeña variación.**

**7.- Ordu-kreditua udako ikastaroetan.**

Ordu-kredituari dagokionez, Lankidetza Hitzarmena arautzen duen 2005eko azaroaren 30eko Aginduari jarraituko zaio. Ondorioz, Udako ikastaroetan emandako orduek gastatu egiten dute langilearen ordu-kredituaren saldoa. Horretarako, ikaslearen taldean lehenengo klase egunetik hasita eta ikastaroa amaitu arte emandako eskola-orduak zenbatuko dira. Langileak kontuan hartu beharko du hori datorren 2017-2018 ikasturterako, bere ordu-kreditua positiboa izan behar baita.

**7.- El crédito horario en los cursos de verano.**

En los cursos de verano será de aplicación lo establecido en la Orden de 30 de noviembre de 2005, que regula el Convenio de Colaboración con el IVAP. En consecuencia, los cursos de verano consumen saldo del crédito horario del/de la trabajador/a, de manera que se computarán y descontarán del crédito horario las horas impartidas en el grupo desde el primer día hasta el último día del curso. Conviene por ello tener en cuenta esto para el curso 2017-2018, pues el crédito horario debe ser positivo.

Para poder iniciar un curso intensivo de

Udako euskara ikastaroa hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da 2016-2017 ikasturtearen hasieran ordu-kredituaren saldoa aldekoa izana. Modu honetan aplikatuko da:

- 2016-2017 ikasturtea urrian hasi zuten ikasleei ikasturtea hasi aurretik aplikatu zitzaien ordu-kredituaren kontrola; beraz, udako deialdian ez zaie berriro aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea urrian hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditu negatiboa izan. Edozelan ere, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko dira, ikasturtean zehar emandako gainerakoak bezalaxe.

- 2016-2017 ikasturtea otsailean hasi zuten ikasleei otsaileko ikastaroa hasi baino lehen aplikatu zitzaien ordu-kredituaren kontrola; beraz, udako deialdian ez zaie berriro aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea otsailean hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditu negatiboa izan. Edozelan ere, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko dira, ikasturtean zehar emandako gainerakoak bezalaxe.

- Azkenik, (2016-2017 ikasturtean matrikulatuta egon ez direnak) baina 2017ko udako ikastaroa hasiko duten ikasleei, eskaera IVAPen hartzen denean aplikatuko zaie ordu-kredituaren kontrola, eta saldo negatiboa dutenek ezin izango dute udako ikastaroa egin. Hau da, ikasle horiek udako ikastaroa egin ahal izateko, aldeko saldoa izan beharko dute; bestela, IVAPek bazter utziko du eskaera.

verano será necesario haber tenido saldo de crédito horario positivo al inicio del curso 2016-2017. Este extremo se aplicará de la siguiente manera:

- A quienes comenzaron el curso 2016-2017 en octubre, ya les fue aplicado el control del crédito horario en aquel momento, por lo que no se les volverá a aplicar para el curso de verano. En consecuencia, quienes comenzaron el curso en octubre podrán participar en los cursos de verano aunque su crédito horario sea negativo en el momento de realizar la solicitud del curso de verano. En cualquier caso, las horas impartidas en el curso de verano seguirán consumiendo crédito horario, al igual que el resto de horas impartidas a lo largo del año.

- A quienes comenzaron el curso 2016-2017 en febrero, ya les fue aplicado el control del crédito horario en aquel momento, por lo que no se les volverá a aplicar para el curso de verano. En consecuencia, quienes comenzaron el curso en febrero podrán participar en los cursos de verano aunque su crédito horario sea negativo en el momento de realizar la solicitud del curso de verano. En cualquier caso, las horas impartidas en el curso de verano seguirán consumiendo crédito horario al igual que el resto de horas impartidas a lo largo del año.

- Finalmente, en el caso de las personas que vayan a realizar el curso de verano de 2017 (y no hayan estado matriculados el curso 2016-2017), se les aplicará el control del crédito horario cuando se reciba su solicitud en el IVAP. Dichas personas deberán contar con un saldo positivo a la hora de realizar la solicitud, ya que, de lo contrario, el IVAP denegará su solicitud.

**8.- Matrikularen ordainketa**

Langileek ez dute matrikularik ordaindu behar. IVAPek hartuko du bere gain ikastaroen matrikularen ordainketa; barnetegien kasuan, baita ostatua eta mantenua ere. IVAPek ez du bere gain hartuko bestelako gasturik, hala nola, joan-etorriak edo materialak.

**8.- Pago de la matrícula**

El trabajador no habrá de abonar el importe de la matrícula. El IVAP asumirá el pago de los cursos. También tomará a su cargo los gastos de hospedaje y manutención en el caso de internado. Sin embargo el IVAP no cubrirá otros gastos como desplazamiento o material.

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

**9.- Ikasleei buruzko informazioa eta datuen babesa**

Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion sailari lagatzea. Horrela, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu, eta erakunde bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio.

Lankidetza Hitzarmenaren ondorioz jasoko diren datu pertsonalen tratamendua, bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera egingo da.

Lankidetza Hitzarmenera biltzen diren langileek onartu egiten dute bertan ezarritako helburuak betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua. Horrela, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien erakundeei jakinaraztea bai euren asistentziari eta ebaluazioari dagokienez, eta baita euren aprobetxamenduari buruzko txostenei dagokienez ere. Onartu egiten dute baita ere, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko txostenak egin ditzan, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. art.). Onartu egiten dute azkenik, datu-lagapenak egitea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari –HABEri-, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera).

**9.- Protección de los datos personales**

Al objeto de gestionar los cursos de euskera resulta imprescindible recoger, procesar, reunir en un fichero y poner a disposición de las administraciones correspondientes datos personales del alumnado. Por este motivo, el IVAP recogerá los datos de asistencia y evaluación de todas las personas que reciban formación en euskera tanto en horario laboral como en horario extralaboral.

El tratamiento de los datos personales recogidos como consecuencia del Convenio de Colaboración se llevará a cabo según lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, que regula la Protección de Datos de Carácter Personal, así como en la normativa sobre medidas de seguridad de los ficheros automatizados que contienen datos personales, aprobada mediante RD 994/1999, de 11 de junio.

Las personas que participen en esta convocatoria autorizan el procesamiento de datos personales llevado a cabo para el cumplimiento del objetivo del Convenio de Colaboración. De igual manera, autorizan la recogida de datos y puesta a disposición de las administraciones correspondientes de la información de su asistencia y evaluaciones. Autorizan, asimismo, la cesión de estos datos a la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura para la elaboración del informe de evaluación sobre el nivel de cumplimiento del plan de normalización (Artículo 6 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi). Por último, autorizan la cesión de datos a HABE –Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos (en cumplimiento de lo establecido en la disposición adicional sexta del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi).

Ikasleei buruzko datu-pertsonalak Datuak Babesteko Agentzian erregistratutako "Funtzionarioak euskalduntzea" izeneko fitxategian egongo da. Ikasleek Fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, HAEEko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia-San Sebastian kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

Los datos personales del alumnado estarán incluidos en el fichero denominado "Euskaldunización de funcionarios" registrado en la Agencia de Protección de Datos. Todas las personas podrán ejercer su derecho al acceso a los datos del fichero, a la modificación de dichos datos o a su anulación, para lo cual deberán dirigirse a la Secretaría General del IVAP: calle Donostia-San Sebastián 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

**Ikastaro hauek egingo dituzten langileak ez dira inolaz ere euren lanpostuetan ordezkatuak izango.**

**Las personas que realicen estos cursos dentro del horario laboral, no serán sustituidas durante el mismo, bajo ningún concepto.**

**EUSKARA ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA.**

**VICERRECTORADO DE EUSKERA Y FORMACIÓN CONTINUA.**